

Prest!



BERBETAN: **IKER MADRID** HISTORIA GARAIKIDEKO DOKTOREGAIA

ERREPORTAJEA: **DEUSTUKO ONDARE HISTORIKOAREN BILA** BARKUA: **BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA**

1-242-243-244-245



Sustatzailea

Verbaizu
— euskara elkarte —

Babesleak



DEUSTO 3 BIZIRIK
Comercios, servicios y hostelería de Deusto



Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkarteak da edukiaren erantzule bakarra



Babestu Prest!

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

- Izen-abizenak
- Helbidea
- Telefonoa
- E-posta
- Kontu zenbakia (Iban)

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42

Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

	Ibai Etxautz - Jaione Ayestaran		Iritzia	4
	Silvia Tomás		Gurera etorriak	5
e	erreportajea			

Kalean eta museoetan, Deustuko ondare historikoaren bila

Aurreko udan Deustuko Elizatearen udaletxean zegoen armarrria gurera bueltatu zuten hainbat hamarkada Bilboko Euskal Museoan egon ondoren. Baina hau ez da gure herriaren historiako ondare-elementu bakarra, ezta zaharrena ere. Kalean zein museoetan beste hainbat aurki ditzakegu, baita X. mendeko bat ere.

6

	Intxixu Ikastola		Eskolak	10
	Agur Konstituzioari (1823)		Behin batean	12
	Errondoko Auzo Etxearen seigarren urteurrena		Artikulua	14
b	berbetan			

IKER MADRIDekin

San Inazion hazia eta hezia da Iker Madrid. Politika-Zientziak ikasi eta gero, egun Historia Garaikideko doktoregaia da EHUUn. Ikerketa Unibertsitatetik kanpo zabaldu behar dela iritzita, Bilboaldeko emakumeek Frankismo garaiko bigarren zatian (1959-1975) lan munduan izan zuten presentzia ikertzen ari da bere tesian.

16

	Cromoduro (2005)		Irudiak berbetan	21
--	------------------	--	-------------------------	----

DEUSTUKO HERRIKO TABERNA Deustuko Herriko Taberna, 35 urte gure artean

BERTSOLARITZA Dena prest 2023ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketa hasteko

NUTRIZIOA Ainhoa Maiztegi

KULTUR TXOTX Patri Muñoz eta Galder Segurola Fernandez



**barkua
bete
herba**

24

Prest!

Argitaratzailea:

BLB Komunikazioa Koop. Elk.

Tel: 94 447 10 42

Ramon y Cajal 42

Deustu 48014

bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Nerea Cubillo Urkizu

Eredakzioa: Axular Arostegi, Asier Cobos, Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hektor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurraga

Kolaboratzaileak: Elorri Berto-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inaziko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inaziko Jai Batzordea, Bilbotik Perura

Argazkiak: Ecuador Etxea

Publizitatea: Nerea Cubillo Urkizu

Diseinua: BO5T

Maketazioa: Laura Freijo Iglesia

Inprimategia: Antza

Ale kopurua: 2.800

Lege Gordailua: BI-571-01



Lehortea



Ibai Etxautz
Sanikoa

Orain gutxi irakurri nuen Kanariar Irletako hainbat herritan ur-mozketak egon direla. Bertako herritarrei ura moztu bitartean, ordea, hotel, resort eta turistentzako prestatutako igerilekuetan ez da hala gertatu. Argi geratu da, berriro ere, baliabide naturalak diruaren errota hauspotzeko baliagarri badira, korronte urria ez dela egartsuen eztarrira heltzen.

Egunero entzuten dugu lurra gaixo dagoela eta ezer egin ezean gaixotasun hori terminal bihurtuko dela. Ildo beretik, politikari eta korporazio handiek norbanakoen ardurari egiten diote dei klima-aldaketari aurre egiteko. Hala ere, baliabideak "egoki" erabili, birziklatu, bertoko produktuak erosi eta abar esan bitartean, mezu ezin kontsumistagoekin bonbardatzen gaituzte.

Gizartearen dinamikak arautzen dituen sistema ekonomikoa diruaren metaketa edo pilaketa etengabearen oinarrituta dago, hazkuntza amaigabea. Metaketa hori, ordea, baliabide mugatuak ardura gabe ustiatuz egiten da. Beraz, sistema bera, kapitalismoa, funtsean kontraesankorra da lurraren biziraupenarekin.

Gutxi batzuentzako hain emankor den kapitalismoaren iturri aseezinak amalurraren sikate atzeraezina du txanponaren beste aldean. Kapitalismoa jasangarria edo "berdea" izan daitekeela iradokitzea arazoaren erroari muzin egitea da. Akaso auziari ur lurrunez lausotutako betaurrekoekin begiratzeari uzten badiogu, aterabidea aurkituko diogu.



Jaione Ayestaran
Kazetaria



Pablo

Otsailak 28. Dei bat. Albisterik txarrena.

Hamalau hilabete igaro dira ordutik, eta Pablo Gonzalez kazetariak preso jarraitzen du Poloniako espetxe batean. Ezer gutxi dakigu bere egoeraz. Komunikatzaile inkomunikatua da. Non eta Europar Batasuneko herrialde batean. Non eta demokrazia banderatzat duen Europar Batasunean.

Ekintzek, ordea, beste zerbait erakusten digute. Mugarik Gabeko Erreportariak urtero argitaratzen duten prentsa-askatasunari buruzko munduko sailkapenean, Europar Batasuneko azken postuetako podiuma osatzen du Poloniak Hungaria eta Bulgariarekin batera.

Alderdi ultrakontserbadoreak urteak daramatza prentsa-askatasuna eta informazio-eskubidea murriztea helburu duten legeak onartzen. Bertan dago preso Pablo Gonzalez kazetaria. Frogarik gabe. Bermerik gabe. Baina instituzioei bost. Ez dute erakusten ez ardurarik, ez interesik, ez ezer egiteko asmorik.

Beste hainbatetan egin bezala, gatazka-eremutik bertatik informatzeko bidaiatu zuen nabarniztarrak. Baina oraingoan ez da itzuli. Etxetik 2.500 kilometrora dago. Tartean, kontinente oso bat isiltasunean. Pentsatzekoa da Europak ezin duela jasan Ukrainari buruz egia esaten duen kazetaririk.



Silvia Tomás

Jatorria: Albacete

Bizitokia: Bakio

Lanbidea: akademiako irakaslea



“Hasiera batean urte baterako soilik etorri banintzen ere, jendearengatik eta lurraarengatik banekien lehenago edo beranduago geratzeko itzuliko nintzela”

Zenbat denbora daramazu Euskal Herrian bizitzen?

Bederatzi hilabete eman nituen bizitzen 2017-2018 ikasturtean. Ondoren, 2019ko irailean itzuli nintzen eta harrezkero, hemen bizi naiz.

Zerk bultzatu zintuen hona bizitzera?

Karreran nengoela, SICUE esperientzia ezagutzen ez nuen lekuren batean egitea pentsatu nuen eta, egia esan, beti izan dut Euskal Herria ezagutzeko gogoia. Hala, inor ezagutzen ez nuen arren, abentura txiki bat bezala hartu nuen. Hasiera batean urte horretarako soilik etorri banintzen ere, jendearengatik eta lurraarengatik banekien lehenago edo beranduago geratzeko itzuliko nintzela.

Noiz eta zergatik hasi zinen euskara ikasten?

Nire ustez, euskara ikastea etxean sentiarazi nauten pertsonetik eta lurraarengatik errespetua erakusteko modu bat da. Era berean, Euskal Herria nire etxea bezala sentitzeko egin behar dudana zerbait bezala ulertzen dut prozesu hau. Horregatik, duela hiru urte hasi nintzen euskaltegian ikasten, eta oraingoz, ez da batere gaizki joan.

Zer suposatzen du zuretzat euskara bezalako hizkuntza bat ikasteak?

Ez dizut gezurrik esango, ahalegin handia da. Astean ordu asko dira eskolak emateko, etxean ikasteko, kuadrillarekin hitz egiten saiatzeko, baina aberasgarria da. Gainera, aitortu behar dut hasieran askoz ere beldur handiagoa ematen zidala, baina, zaila izan arren, dirudiena baino errazagoa dela. Horretaz gain, lorpenak eta ikaskuntza igertzea eta, finean, pixkanaka hemen bizitzen jartzen zarela ikustea gauza polita da.

Orain Bakion bizi zaren arren, Deustun bizi izan zara bi urtez. Diferentziarik somatu ahal izan duzu aldaketarekin?

Deustutik gehien gustoko nuena eta beti faltan botatzen dudana zera da: Bilbo bezalako hirigune baten egon arren, herri batean bizi zarenaren sentsazioa izatea. Ikusten dudanez, Deustuk auzo nortasun horri eustea lortu du; jakin izan du herriaren elkarbizitzarako jarrera mantentzen, hiri handi bateko zerbitzu guztiak eskuragarri izanda. Pandemia garaian esaterako, gogoan dut elikagai-dendetako andreek gure amamak balira bezala zaintzen

gintuztela. Jakina, Bakion herri sentsazioa dut, noski, baina Deustuko zerbitzuen erabilgarritasuna faltan sentitzen dut, hala nola auzoko mila farmaziak, kale bakoitzeko Eroskiak edota Agirre lehendakariaren kaleko terrazak. Ez dakit zentzu handirik baduen, orain herri batean bizi naiz eta asko gustatzen zait, baina Deustutik faltan sentitzen dut herri batean bizitzea, hiri baten barruan egonda ere.

Zenbatero itzuli ohi zara Albacetera?

Ikasten ari nintzenean, zerbait gehiago itzultzen nintzen, baina orain, urtean hiru bat aldiz. Gabonetan, Aste Santuan eta udaran.

Ba ote dago ezer bertatik bereziki faltan botatzen duzunik?

Nire familia, kuadrilla, eta edozein unetan euria egingo ote duen kezkatu gabe kalera irten ahal izatea; oraindik ezin izan naiz azken elementu horretara ohitu. Oro har, herriaren falta sumatzen dut, baina egia da ikasten hasi nintzenetik kanpoan bizi izan naizela; beraz, distantzia kudeatzen ikasi dudala esango nuke.



KALEAN ETA MUSEOETAN, DEUSTUKO ONDARE HISTORIKOAREN BILA

Aurreko udan Deustuko Elizatearen udaletxean zegoen armarria gurerara bueltatu zuten hainbat hamarkada Bilboko Euskal Museoan egon ondoren. Baina hau ez da gure herriaren historiako ondare-elementu bakarra, ezta zaharrena ere. Kalean zein museoetan beste hainbat aurki ditzakegu, baita X. mendeko bat ere.

Testua eta argazkiak: Asier Robles

Deustun barrena paseatuz, gaur egun nekez aurki daitezke elizate honen iragana nolakoa izan zen irudikatzen lagunduko diguten gauzak. Historikoki landa-eremu izan den (Deustuko Erribera alde batera utzita) eta XX. mendera arte hirigune garrantzitsurik izan ez duen herria izanik, eraikin eta objektu zahar gehienak desagertu egin dira: dorretxeak, baserriak, txakolindegiak, ermitak... Esaterako, Doneperiaga eta Arangoiti lotzen dituen Kaputxinoen igoeran, antzina kaputxinoen ordenako komentu bat zegoen, baina gaur egun ez dago horren arrastorik. 1808an abandonatu zuten, eta 1863an eraitsi.

Deustualdean dauden eraikin gehienak XX. mendean edo gaur egun eraikitakoak dira.

Horien artean eraikuntza nabarmenak badaude, hala nola, Elorrietako Ponpatzailea. Baina gaurkoan eraikuntza zaharragoenetan jarriko dugu arreta.

1898an eraiki zen Deustuko Erriberan begiratoki zirkularra duen Madaleno-Yandiola jauregia, bere estilo arkitektonikoagatik oraindik ere deigarria dena. XIX. mende amaierakoa da ere Severino Atxukarro arkitektoak Ramon Ibarra Arregirentzako diseinatutako Bidarte Jauregia, gaur egun Udalgia dena.

Urte batzuk lehenago, 1886an, Deustuko Unibertsitatea inauguratu zen 'La Literaria' eraikinarekin, non Zuzenbide ikasketak ematen diren. Unibertsitatearen ondoan Kabako



Goossens-jauregia.

bi etxeak daude, Ybarra eta Villalonga familiak 1869an eraikiak. Mende berekoa da Ramón y Cajaleko 40. zenbakiko etxebizitza berria, 1867an datatutako plaka bat duena.

Deustuibarran antzinako etxe batzuk aurki ditzakegu, baita kaia, ontziraleku eta ontziolen hondakinak ere. Halaber, Banderas-Elorriaga eta San Bernabeko mendietan gerra karlisten garaiko gotorlekuen aztarnak ere aurki ditzakegu.

Ikastetxe bihurtutako jauregia


XVIII. mendekoa da Goossens leinuaren etxea izan zen eraikina. Gaur egun, Botikazahar institutuko eraikinetako bat da eta, oraindik, Agirre Anaien Kaletik, hollandar jatorriko merkataria honen armarrria ikus daiteke.

Mende horren hasieran, 1725. urtearen inguruan, Bizkaiko lehenengo haize-errotetako bat eraiki zen Berrizen, Deustuko Elizateak eta Begoñakoak bat egiten zuten eremuan. Antza denez, inguruko errota hidraulikoaren funtzionamendua eragotzi zuen lehorte handi baten ondorioz eraiki zen.

1936ko gerran, ondare elementu honek obus baten leherketa jasan ostean, hondatuta geratu zen; gerora, berreraikitze lanei ekin zioten. Deustuko Unibertsitatetik Artxandarako bidea hartuta ikus daiteke, harresitutako esparru baten atzean dauden arren.

Enperadore batek saritutako leinua

Aurreko mendeetako da Larrakotorre. Dorretxe honen hondakinak gaur egun Sarrrikoko parkean aurki daitezke, nahiz eta bere sorlekua San Inazio izan; hain zuzen,



Larrakotorre.

zonaldea Telletxe izenez zen ezaguna. Bere jatorria ez dago oso argi. Historialari batzuen arabera, García de Larrea familiakoek eraiki zuten XVI. mendeko lehen laurdenean. Bi solairu zituen eta oraindik gezileiho batzuk ikusgarri daude. Ekialdekoa da fatxada nagusia, erdi-puntuko sarrera-arkua duena.

Atearen gainean eraikin honen elementurik harrigarriena dago: armarría. Ez da familia batekoa, baizik eta Borgoinako Ordenarena, Karlos V.a enperadoreak Tunisia konkistatu (otomandarren eta Barbarrojen aurka) ondoren sortua.



Borgoina-armarría.

Badirudi, Cosme (edo Gome) Garcia de Larreak almirante gisa borrokatu zuela gerra horretan, eta enperadoreak Borgoinako Ordenarekin saritu zuela, armarría jartzeko baimenarekin.

Armarríak: beste garai bateko adierazle

Edozein kasutan, ez da armarrí hau dagoen leku bakarra. Deustuko Erribera kaleko 16. atariaren gainean ere ikus daiteke armarrí berbera.

Dirudienetz, XVI. mendean Larrea familiaren eraikina zen baita hori ere. Larrakotzerreren kasuan, XX. mendearen erdialdean eraikitzen ari ziren etxebizitza berrien artean harrapatuta geratu zen eta, urteetako utzikeriaren ondoren, 1960ko hamarkadan Sarrikora eraman zuen Udalak, baina ez da bere osotasunean kontserbatzen.

Parke berean, Larrakotorretik gertu, Zubiararren jauregiaren elementu batzuk geratzen dira oraindik ere; hala nola, portalea leinuaren armarríarekin. Familia noble hau XX. mendearen hasieran ezarri zen leku horretan, baina 60ko hamarkadan utzi zuen.

Deustuko dorre edo jauregi zaharren oroitzapen gehiago aurkitzeko, Bilboko Alde Zaharrean dagoen Euskal Museora jo behar da.

Handitze lanak direla eta, museoa itxita dago une honetan, baina laster Madariaga Dorretxe historikoaren armarría eta bi leihoburu ikusgai egongo dira berriro. Bi leihoburuek elementu berberak dituzte:



Madariaga Dorretxea.

merkatari eta armadoreen markak erdian, eta Jesu Kristoren monograma alboetan.

Behekoa jatorrizko dorrearen (Erdi Arokoa) arku trilobulatuan zegoen, eta bestea, aldiz, 1825ean Julian Basaberen berreraikuntzakoa da. 1949an eraitsi zuten.

Museo berean antzinako Leuzarra edo Luxarra dorretxeko armarrria gordeta dago. Bere orubea zena gaur egun Unibertsitate Komertzialaren lorategiak dira. 1913an eraitsi zuten eta bakarrik armarrria eta sarrera-arkuaren 1910eko argazki bat geratu da.

Herri guztietan bezala, historiaz eta ondareaz hitz egiterakoan ezin dugu eliza ahaztu, kasu honetan San Pedro Parrokia. Ignacio Villotak "Apuntes de nuestra pequeña historia de Deusto" liburuan dioenaren arabera, XIV. mendean eraikia izan zen eta 1550. urte aldera berreraikita eta handituta.

Geroago, XVIII. eta XIX. mendeetan, obra eta handitze garrantzitsu gehiago egin ziren, kanpandorrea kasu. Bertan, XVI. mendeko erretaulak aurki ditzakegu. Bestalde, Bizkaiko Eleiz Museoan (Atxurin) tenplu honen XVI.

mendeko Gurutze bat eta Santa Ana Hirukoitzen eskultura bat daude ikusgai.

X. mendeko aztarnak presente Deustun

Eliza honen inguruan, Deustuko elementurik zaharrena izan daitekeena aurkitu zen: Euskal Museoan dagoen X. mendeko hilobi estalki bat.

Deustuko frontoi zaharraren atzealdean agertu zen, seguruenik San Pedro elizaren hilerri zaharrean. Ferra-arku txikiz apainduta dago burualdean zein oinaldean, erdian disko-formako beste motibo batzuk dituelarik. Ez dirudite kristauak.

Harrigarriena zera da, hilobi estalkia eliza baino lau mende zaharragoa dela. Era horretan, Mario Granderen iritziz, hilobia X. mende inguruan datatu zuen arkeologoak, leku horretan San Pedro eliza eraiki baino lehen monasterio bat egon zitekeen. Hain zuzen ere, Euskal Herriaren kristautzearen lehen mendeetan.

Honek guztiak ikerketa-lerro bat ireki lezake Deusturen jatorrian sakontzeko.



Hilobi estalkia X.m.



ESKOLAN BIZIA, GOGOA ETA ILUSIOA NONAHI

“Badauzkagu bi indar bizitzen laguntzen digutenak, ahanztura eta itxaropena”, horrela zioen idazle ospetsu batek. Arrazoi osoz esaten zuen, Covid 19aren ondorioz pairatu dugun pandemia “gainditu” ahala, aurreko bizimoduari ekin diogu eta pandemiaren oroitzapenak difuminatuz joan dira.



Testua eta argazkiak: Intxixu Ikastola

Hezkuntza munduan ere horrela gertatu zaigu. Garai txarra pasa dugu, bat-bateko etxeko itxialdiak behartu gintuen egoera berrira azkartasunez eta eraginkortasunez egokitzen. Mila arazo eta oztopo gainditu behar izan genuen ahaleginez eta kemenez. Eskolara itzuli eta errealitateak muga asko inposatu zizkigun, kalitatezko hezkuntzari min egiten diotenak. Materialak, uneak, esperientzia didaktikoak, lekuak... eragin itzela izan zuen isolatzeak hezkuntza komunitate osoan.


Zorionez, garai gris horiek pasa dira eta ikastola biziarekin beteta dago. Berrito ere hasiak gara dozenaka jardura didaktiko egiten, irteerak, hezkuntza komunitate

osoarentzako jaialdiak eta ikuskizunak, mota guztietako esperientzia partekatutak etengabe egiten ari gara eta honek zoriontasuna ekartzeaz gain kalitatean ere sekulako eragin positiboa dauka.

Ikastolatik ibilbidea eginez gero, laster konturatzen gara proiektu asko abian ditugula, gelan, pasabideetan, gimnasioan, kalean edo amankomuneko gelaetan egiteko direnak. Gune mugatu honetara guztiak ekartzea ezinezkoa litzateke; beraz, horietako batzuk partekatuko ditut zuekin guztiekin.

Egun hauetan liburu eguna ospatzen ari gara eta jardura asko antolatuta ditugu umeen irakurtzeko grina piztearren

eta literaturaren inguruan ikasleen arteko interakzio momentuak sustatzearren. Goi mailako ikasleek mikro-ipuिन ederrak idatzi dituzte eta oraingoan gelaz gela pasa dira ipuin horiek ikastolako ikaskideei kontatzen. Gainera, gutxi balitz, “Bilbo Hiria” irratian mikro-ipuिन horiek kontatzeko aukera zabaldu zaigu. Honez gain, bestelako tailerrak ere burutu ditugu haur-literaturaren inguruan.



Familien parte hartze aktiboa ere berreskuratuz ahal izan dugu eta betiko moduan sekulako babesa, laguntza eta inplikazioa helarazi digute. Egun hauetan, adibidez, ikastolako guraso diren 3 herizain LHko hirugarren eta laugarren mailako geletan lehen soro-sopenen inguruko tailerrak egiten ari dira. Umeak motibazio itzela izan dute eta modu aktiboan hartu dute parte. Jarduera honek, noski, berriindartu egiten gaitu honelako aktibitate gehiago egiteko gurasoen laguntzaz. Eskerririk asko, bihotzez, guraso estimatuak!



LHko 6. mailakoek aste honetan irteera polita bezain hezitzailea egin dute. Bilboko udaltzainen laguntzaz, Bilbon zehar ibili dira txirindulaz. Nola ez, izugarri ondo pasa dute, baina gauza interesgarriak eta garrantzitsuak ikasteko aukera ere izan dute; haiek bakarrik, lagunekin edota familian txirindularekin gozaten ari direnean arriskuak murrizteko oso ondo etorriko zaizkienak, alegia.


Laburbilduz, ikastolako bazter guztietatik bizia eta gogoia arnasten ari gara eta honek irakasleoi, familiei eta ikasleei irribarre partekatua murrizten digu bihotzean.





AGUR KONSTITUZIOARI (1823)

Berrehun urte dira Espainiako Konstituzioa kendu eta foruak berriz ere indarrean jarri zituztela. Matxinada armatu batek eman zion amaiera Hirurteko Liberalari (1823-1823), San Luisen Ehun Mila Semeen armadaren laguntzaz.



Testua: Hektor Ortega

1820eko martxoan Espainiako Fernando VII. erregeak Cadizko konstituzioa zin egin zuen, “Marchemos francamente, y yo el primero, por la senda constitucional”, esanez. Bezpera arte, errege absolutua zenak konstituzionalista agertu zuen bere burua armadaren fideltasuna kolokan ikusi zuten. Izan ere, Rafael Riegok urtarrilean Cadizen jo bertan jo zuen estatu-kolpeak huts egin bazuen ere, artean erregearen boterea oso ahulduta zegoen.

Bizkaian laster bildu ziren Batzar Nagusiak eta foruei eustea erabaki bazuten ere, Espainiako Gobernu berriak foruak erauzi eta Hego Euskal Herriko lau herrialdeak estatu konstituzional berrira batu zituen, ageriko erresistentzia nabarmenik gabe. 1820ko uztailaren 12an Deustutik igaro zen mikelete multzo bat, atxilotu bitxi batekin. Portugaletik zekarten Pedro Agustín Etxabari jenerala,

“y yo el primero” esan zuen erregearen aginduz Bizkaian matxinada piztera etorrita (ikus PREST! 101). Berandu zen, hala ere. Erregearen aginduekin eta agindurik gabe, artean bazebilen bizkaitar andana bat beharrean, “lege berria” irauli eta errege absolutua, erlijioa eta lege zaharrak berpizteko.

Lehenengo hildakoa

Deustuarren artean denetariko iritziak piztu zituen lege berriak. Alegia, aldekoak, kontrakoak eta indiferenteak. Liberalismoaren erakusgarria da herrian Milicia Voluntaria izenekoa osatu izana. Izenak berak iradokitzen duenez, Konstituzioaren alde armak bere borondatez hartu zituzten gizonzkoek osatu zuten. Bizkaiko herri gutxi batzuek eratu zuten horrelako atalik, eta Deustua horietakoa izan zen. Euskaraz horrelakoei boluntario esan zieten. Osatu ez ezik, jardun ere egin zuen milizia hark. Agustín Urrutiak urte batzuk geroago

esan zuenez, derrigortuta eman zuen izena Deustuko boluntarioetan. Baina, “ez zuen inoiz parte hartu boluntarioek Deustutik kanpo erregezaleak jazartzeko egindako irteeretan”. Beraz, Deustuko boluntarioak matxinatu antiliberalen aurkako jardunean murgilduta ibili ziren.

Bizkaiko lehenengo matxinada garrantzitsuak 1821eko abenduan porrot egin ostean, bigarrena 1822ko maiatzean piztu zen. Apal-apal hasi zen, Bilbotik mendira jo zuen gizon multzo batekin. Hurrengo asteetan gero eta gehiago izan ziren herri eta hiribilduetatik irten eta “mutiletara” joan zirenak. Horietakoa izan zen Juan Aretxederra bilbotarra. 1822ko ekainaren 1eko gauean etxetik atera eta Deustuko baserri bateraino heldu zen, Artxandako hegian, Axerrotatik hurrean. Han burkide gehiagoren zain zegoela, haiekin adostutako seinalea egin zioten. Baserritik atera zen baina han ez zeuden mutilak, tiroka akabatu zuten Valencey erregimentuko soldaduak eta Bilboko boluntarioak baino.

Mutilak... eta gurasoak

Mungiako Fernando Zabala zebilen Bizkaiko matxinatuen buru. Euskaraz mutilak edo mendi-mutilak esaten zieten bere gerrillariei. Batzuetan oste txikietan banatuta, beste batzuetan handiagoak osatuta, gehienbat ihesi eman zituzten hurrengo hilabeteak, Armada espainolaren nagusitasuna erabatekoa zelako. Erabatekoa, baina ez nahikoa mutilak harrapatzeko eta deuseztatzeko. Hilabeteak igaro ahala, gerra gogortu eta lastu egin zen, eta alde batekoak zein besteak gero eta gehiago ziren, eta gero eta gordinago jokatu zuten.

1823ko otsailaren amaieran, Ibarrekolandako landan batu ziren Deustuko gazte batzuk. Isilpeko batzarra zen hura, mutiletara joateko asmoa

zeukaten eta. Haietako bat Jose Cantalop zen eta, kontatu zuenez, “hiru gazte fusil eta kananekin agertu ziren”. Izan ere, arma haiek Konstituzioa defendatzeko banatu zituen Deustuko Udalak herritarren artean. Laster zabaldu zen berria eta handik gutxira Jose Angel Ugarriza alkateak hiru gazteon aitei ultimatumak jarri zien: bederatziguneko epean semeak herrira atzera ekartzen ez bazituzten, espetxeratu behar zituen eta haien ondasun guztiak bahitu.

Hiru gizonak Martin Asua, Nikolas Aldekoa eta Jose Ramon Zarraga ziren. Hirurak baserritar errenteroak eta, horrez gain, bi gabarrari eta hirugarrena upelgile. Balmasedan aurkitu zuten semeak zebiltzan mutil taldea. Kinka hartan hiru gizonak erabaki latza hartu zuten: matxinatuen ostearekin gelditu ziren, etxera itzuli barik. Horrela saihestu nahi zuten Ugarrizaren zigorra.

Zoritxararen erdian, zortea lagun eduki zuten. Apirilaren 7an San Luisen Ehun Mila Semeek Bidasoa zeharkatu zuten. Fernando Zabalaren tropek haiekin bat egin zuten, Armada espainolak atzera egiten zuen bitartean. Hiru egun geroago, apirilaren 10ean, antiliberalak Bilbon sartu ziren. Mendieta matxinatuekin 38 egunez ibili eta gero, hiru aitak etxera itzuli ziren, onik. Apirilean bertan foru egiturak berriro jarri zituzten martxan, eta maiatzean Bizkaiko Batzar Nagusiak bildu ziren.

1936-1937 bitartean Deustuan izandako bonbardaketen berri jakin nahi duenak, jo beza Borja Sarrionandia-Ibarraren *La II República y la Guerra Civil en Deustu* liburura. Eta, oro har, Hego Euskal Herrian izan ziren aire erasoen gainean informatzeko, Xabier Irujoren *Atlas de bombardeos en Euskadi* (1936-1937) aukera bikaina da.



Kalderapeko
euskal kultur gunea

www.kalderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99



ARDIURME, DEUSTUN EGINDAKO LEHEN IBILGAILU ELEKTRIKOA

Propulsio elektrikoa uste baino ageriago egon da gure historian zehar. Elon Musken Tesla autoetatik urrun, Deustun duela 120 urte baino gehiago egin zen lehen ibilgailu elektrikoa, “La Maquinista Bilbaína” delakoaren eskutik.



Ardiurme: Manuel Lagek idatzitako “Historia de la Industria Española de Automoción” liburutik hartutako irudia.

Testua: Asier Cobos

Iritzi orokorraren kontra, 1905ean ere bada auto elektrikoan berri Euskadin. Hain zuzen ere, Deustun ekoitzi zen gure lurraldeko lehen auto elektrikoa: Ardiurme deiturikoa. Honako hau ez gaitu ezustean harrapatu behar. Izan ere, garai hartan Deustuk automobil ekoizpen handia baitzuen, eta Bizkaiko automobilaren “sorlekua” baitzirudien.

Miguel Martin Zubimendi automobilaren historia-lariak azaldu duenez, “La Maquinista de Bilbaína” enpresa deustuarrak trakzio elektrikoko lehen ibilgailua egin zuen, Artiñano Diaz y Hurtado de Mendozak diseinatutakoa. Zehazki, diseinatzailaren izenetik dator AR, DI, UR, ME akronimoa.

Enpresaren lantegia itsasadarraren ertzean zegoen kokatuta, Zorrotzaurre parean. Bilboko ibilgailuen dokumentu ofizialetan automobil-modelo honetako bi ibilgailu matrikulatu zirela zehazten da; bata, Bilbon eta, bestea, Donostian. Estrukturari dagokionez, Ardiurme hiriko autoa zen. Gidariaren eserlekua bidaiari-gelatik bereizita zuena. Izan ere, ezaugarri horrek ema-

ten dio “tres cuartos” deitura, atearen aurrean jartzen zen zaintza-kristala erreferentzia hartuta. Zaldi-ibilgailuei animaliak lo-tzen zitzaizen enborra kendu eta, horiek ez bezala, lau gurpil zituen. Ezaugarri hori ere ez baitzuten gurdiak. Barruan, bi aulki tolesgarri zituen, kontrako norabidean orientaturik. Gainera, bi motor elektriko eta atzeko trakzioa ere bazuen. Zaratarik gabeko ibilgailu “magiko” bat.

Ibilgailu elektriko horri buruzko publizitate argitalpenetan, ondo funtzionatzen zuela egiazta daiteke. Izan ere, garai hartako kroniken arabera, Zabalbideko aldapak “zailtasunik gabe” igo zezakeen autoak. % 14,5eko desnibela duten arrapalak. Gertaera gogoangarri hori autoak eman zitzaizkeen 18 zaldi potentziarekin eta 80 kilometroko autonomiarekin lortu zuzen.

Hala ere, garai hartan mota horretako hainbat ibilgailu ezagutu ziren Bilboko kaleetan zehar. Kriegertarrak adibidez, Paris edo Berlinen ere ikusten ziren taxi dotoreak. Hauek erakusteko sortuak ziren, jabeen erosmen-ahalmena erakusteko. Zehazki, ibilgailu horiek oligarken famulietakoak ziren, Ibarretarrenak edo kondeenak, esaterako.

Beraz, argi dago mugikortasun elektrikoa presente egon dela gure historian zehar. Hasieratik, mugikortasun mota hori bideragarri eta baliozkotzat hartu baitzen. Hala ere, marka handiek leherketa-motorraren alde egindako apustuak eten egin zuen, nolabait, alor horretako ikerketa. Gaur egun, aldiz, badirudi etorkizunak alternatiba horren aldeko apustua egitera garamatzala. Hala ere, eta egungo modeloen inbidiarik gabe, esan daiteke Deustuk duela 120 urte baino gehiago ekoizten zituela hainbeste famatuak diren ibilgailu elektriko “moderno” propioak.



ESPazio AUTOGESTIONATUEN BEHARRA ALDARRIKATU ZUTEN ERRONDOKO AUZO ETXEAREN SEIGARREN URTEURRENEAN

Iragan apirilaren 1ean, larunbatean, Errondoko Auzo Etxeak seigarren urtemuga ospatu zuen. 2021eko huste mehatxua ahaztu barik baina, eguneroko jardunari eusteko irmotasunez, kalera atera zuten autogestioaren eta okupazioaren aldarria.

Testua eta argazkiak: Errondoko Auzo Etxea

Oztopo guztien gainetik, Errondoko Auzo Etxeak sei urte bete ditu auzoan. Sei urte igaro dira San Inazio auzoak espazio autogestionatu bat berreskuratu zuenetik. Izan ere, 2017an Errondoko birjabetu zenean, auzoak 15 urte zeramatzan Kultur Etxerik gabe.

Egoerak gorabehera, urtero ospatu du Errondoko Auzo Etxeak bere urtemuga, egindako ibilbideari so egin eta etorkizunean arreta jartzeko aitzakia ederra baita. Iazkoa ospakizun handia izan zen, espazioak bost urte bete zituelako eta, aurreko urteko huste mehatxuari aurre egitea lortu zuelako auzokide guztien babes eta laguntzarekin.

Aurtengoa ez da horren biribila izan, baina, bazuen berezitasun bat: apirilaren 1a, Errondokoren jaiotza eguna, larunbata izan dela, alegia. Hargatik, egun osoko egitaraua antolatu zuten asanbladako kideek eta ospakizuna auzoko kaleetan zehar barreiatu zuten. Eguerditik hasi ziren giroa tabernaz taberna alaitzen eta bazkalostean jarraitu zuten.



Orkresta elektrotzarangak lagundu zuen musika-rekin kaleko giroa pizten eta iluntzean Sparky eta Ruizza disko jartzaileak izan ziren Lebante plazan.

Atzera eta aurrera begira

Lehen hilabeteak ilusio, indar eta bultzada handikoak izan ziren. Auzoan antolatuta zeuden taldeentzako aterpe izateaz gain, sare berriak sortzeko elkargune ere bilakatu zen Errondoko, eta horregatik jarri zitzaion Auzo Etxea goitizena. Kirol eta kultur taldeak sortu ziren, Txepetx Aisialdi Taldea berpiztu zen, Bilobak Talde Feminista sortu zen, Alogerekoak Etxebizitza Sindikatua, Saniko Greba Batzordea... Navarro Villoslada kalean dagoen espazioaren barruan zein kanpoan hainbat eta hainbat ekintza eta jardunaldi antolatu dituzte asanbladako kideek, eta sorreraz geroztik auzoko jaietan txosna ere elkarbanatzen dute Gazte Asanbladarekin batera.

Kanpoko eragileen etxea ere bada Errondoko, eta hilabetero jasotzen ditu askotariko hitzaldi, aurkezpen eta ikastaroak. Egun, gainera, Gazte Asanbladak bi asteartean behin zinema saioak prestatzen ditu eta kultur emanaldiekin hainbat arratsalde girotu ditu musika, poesia eta baita antzerkiekin ere.

2017ko Errondoko hura aldatuz joan da, garaiak ere aldatu diren bezala, baina muinak tinko jarraitzen du: autogestioaz auzoa saretzea. Antolakuntzaren eta elkartasunaren bidez auzoari eta auzokideei merezi dutena ematen jarraituko du: jardun politiko, sozial eta kulturala garatzeko espazio bat, antolatzeko eta saretzeko elkargune bat eta, batez ere, langileontzako babesgune bat.

berbetan

IKER MADRIDekin

Historia Garaikideko doktoregaia

“Soilik etxeko zereginak egiten zituen emakume burgesar

San Inazion hazia eta hezia da Iker Madrid. Politika-Zientziak ikasi eta gero, egun Historia Garaikideko doktoregaia da EHUn. Ikerketa Unibertsitatetik kanpo zabaldu behar dela iritzita, Bilboaldeko emakumeek Frankismo garaiko bigarren zatian (1959-1975) lan munduan izan zuten presentzia ikertzen ari da bere tesian.



ena zen frankismoak zabaldu nahi zuen emakume eredia”

Zure ikerketak 1930 eta 1950 artean jaiotako emakumeei egindako elkarrizketak hartzen ditu abiapuntutzat; hau da, gehienbat ahozko iturriak erabiltzen ari zara. Eskuragarri dagoen informazio kopurua mugatua dela kontuan hartuta, zerk eraman zintuen gaia hautatzera?

Batik bat oraindik ere frankismo garaiko mito batzuk existitzen direlako imaginario kolektiboan; garai horretan emakumeak lan munduan aritu ez izana, esaterako. Horretaz gain, apur bat alde pertsonalago batetik, nire bi amamek antzeko ibilbidea izan zuten: espainiar estatuko bi herri txikitatik abiatuta, jaioterriko lan aukera ezak oso gazterik (15-16 urterekin) Bilbora eraman zituen. Bertan, hiriko burgesia txikiko familien etheen zaintza-lanetan jardun ziren ezkondu arte. Gero, behin ezkondu eta gero, lan egitera sartu behar izan ziren berriz ere, garaiko testuinguru ekonomikoa tarteko.

Hortaz, ikerketarentzako elkarrizketen erabilerara interesgarria izateaz gain, beste motatako iturriek eskaini dezaketzen informazio falta osatzea du helburu?

Hain zuzen. Gainontzeko iturriek ez dute zintzotasunez islatzen emakumeek garai historiko horretan izan zuten presentzia. Halaber, ez dago emakume horien esperientzia azaltzen duen dokumenturik. Beraz, informazio hori lortzeko bitarteko bakarra elkarrizketak gauzatzea zen. Dena den, hauek ez dute soilik lan-munduko parte-

hartzea neurtzeko asmoa izango, baizik eta baita pertsona hauen bizipenak (familiako harremanak, auzoetako eragileetako parte-hartzea...) jasotzea ere. Orain arte dozena bat emakume elkarrizketatu ditut, denak Deustualdekoak; gehienak Sarrikoko hirugarren adineko erabiltzaileak direnak, hain zuzen.

Hirugarren urtea da ikerketa honekin ari zarelara. Nola deskribatuko zenuke zure tesiaren xedea?

Soilik etxeko zereginak egiten zituen emakume burgesarena zen frankismoak zabaldu nahi zuen emakume eredia. Horregatik, nire helburua zera da: lehenik, ikerketarako zehaztutako aldi historikoan zehar Bilboaldeko emakumeak lan-mundura nola iritsi ziren aztertzea (lan mota edo barne-motibazioak, adibidez); bigarrenik, haiek lan egin izanak garaiko feminitate hegemonikoan izan zuten eragina ikertzea (jasan behar izan zuten presio zein gutxiespen soziala, esate baterako).

Zerk bereizten du garai historiko hau, diktaduraren lehendabiziko garaiarekin alderatuta?

Lehenik eta behin, aldaketa ekonomiko argia eramaten da aurrera: garai autarkikotik, garai desarrollistara. Aurrenak, Mussoliniren ideologia faxistari jarraiki, ikuspegi isolazionista argia zuen; hau da, atzerriatik ahalik eta produktu gutxien ekarri nahi zituen. Bigarrenaren kasuan, ordea, 50. hamarkadaren

“Elkarrizketek ez dute soilik lan-munduko parte-hartzea neurtzeko asmoa izango, baizik eta baita pertsona hauen bizipenak jasotzea ere”

▷ ▷ SAKONEAN

“Ikerketa ezin da izan soilik Akademiaren munduan mugitzeko bitartekoa”

Doktoretza tesiaz aparte, *Contracultura* izeneko webgunearen sortzaileetako bat izan zara. Nola deskribatuko zenuke proiektu hau?

Ikerketa arlo desberdinentzako (Historia, Politika ...) dibulgaziorako espazio bat bezala. Webgunearen bitartez, arlo akademikoan ekoizitako edukia Akademiatik kanpo hedatzeko zailtasunari heltzea genuen helburu; jendarte zabalago batera hurbiltzea, alegia.

Ikerketak arlo ezegonkorraren ospea izan du beti. Bat zatoz baieztapen horrekin?

Erabat. Ikerketaren munduan, hamaika filtro pasa behar dituzu nolabaiteko egonkortasuna lortu arte. Horretaz gain, doktoretzaren bidea oso luzea denez, badago jendea ezin duena horrenbeste urte pasa soldata baten babes ekonomikorik gabe. Beraz, klase-diskriminazio argia pairatzen duen esparrua dugu ikerketarena.

Unibertsitatean ez ezik, unibertsitatetik kanpo ere igartzen da saiatu zarela ikerketari eta gogoetari tartea eskaintzen. Zer suposatzen du zuretzat ikerketak?

Ikerketa ezin da izan soilik Akademiaren munduan mugitzeko bitartekoa. Horrexegatik, ezinbestekoa deritzot jardun hau militantzia politikoarekin edo gizarte errotik aldatzeko aukerarekin lotzen saiatzeari.

bukaeran liberalizazio ekonomiko eta sozial bat identifikatu daiteke. Garai horretan, Bilboaldearen kasua aldaketa horren erakusletzat hartu dezakegu, garaiko migrazio olatu bereizgarriari erreparatuta: hamar urteren bueltan, industrializazioaren ondorioz, hiriburuko biztanleria ia bikoiztu egin zen. Oro har, aldaketa historiko horren baitan, gizarte kontserbadorearen eta modernizazioaren arteko tentsioa somatu zitekeen, erregimenaren irekieraren eraginez.

Ikerketa lanak aurrera eramaterako orduan, datuen fidagarritasuna izan da aurkitutako arazoetako bat. Zu zeu ikerlari izaki, nola konpondu duzu arazoa?

Elkarrizketei esker, batik bat. Horretaz gain, artxibatze lana egin dut ere, garaiko hiru egunkari aztertuta: La Gaceta del Norte, Hierro eta La Hoja del Lunes. Azken hauen kasuan, oso baliagarria izan zait plazaratzen zuten iragarkiak aztertzea, espero zen emakumearen eredia ezagutzeko.





Horrelako testuinguru kontserbadore batean, emazteak lan egiteak arazo bat suposatzen zuen senarrentzako?

Oro har, senarrek ez ezik, imaginarrak ere gaizki zeritzoten emazteek lan egiteari. Azken hauen kondena ulertzeko ulertu beharra dago emakumeari zegokiola garaiko balioak transmititzea. Horrexegatik, askotan familia berako emakumeak ziren lan egiten zuten emazteen aurkako gutxiespena erakusten zutenak. Edozein kasutan, azkenean, egoera ekonomikoak behartuta, gehienak onartzen amaitzen zuten. Emakumeengandik espero zena eta gizartearen aurrean erakutsi beharrekoa ziren gaitzespen horren eragileak.

Emakumeek egindako lan motari dagokionez, zer nolako ardurak hartzen zituzten?

Galdera horren erantzuna leku geografikoaren arabera da. Gehienetan, ezkutuko ekonomiako lanetan aritzen ziren. Ildo horretan, lanbide ohikoek etxe-zerbitzua-ekin zuten zerikusia: mota desberdinetako eraikinen garbiketa, etxetiko lana (margoketa lanak, ebaketa eta jantzigintza), apopilotza... Funtsean, beste edozer gauzaren gainetik, etxekoandarearen jarduna zen haientzako garrantzitsua. Ondorioz, lan munduan edozein ardura hartu aurretik, haientzako ezinbestekoa zen etxeko zereginekin eta umeen zein senarraren zaintzarekin kontziliatu ahal izatea.

“Emakumeak behartuta zeuden lan produktiboa eta ugalketa lanak bateratzera” hala dio zure argitalpen batek. Elkarrizketatutako emakumeak kontziente dira egindako lanaz? Edo etxetik kanpo egindako lana gutxiestera jotzen dute?

Pentsa zeinen hedatuta zegoen emakumeek lanpostu bat izatea, non Sección Femeninak (Falange Española de las JONS alderdiko emakumeen adarra), momentu batetik aurrera, aipatu dituzun bi elementu horien kontziliazioan jartzen du fokoa. Hitz egin dudana emakumeen artean, orokorrean, igarri ahal izan dut ez dutela identitatea langile bezala eraikitzen; oro har, euren ama edo emazte alderdia azpimarratzen zuten.

Nola ikusten zuten aztertutako garaitik mugimendu feministak izandako bilakaera?

Nire ikerketa hausnarketa horretatik aldentzen den arren, elkarrizketa guztietan somatu dut positiboki baloratzen dutela azkenaldian egin den eta egiten ari den berdintasunerako borroka. Aldi berean, garai harekin alderatuta gaur egungo askatasuna azpimarratzen dute bereziki. Izan ere, askok orduan baino askoz ere plan gehiago egiteko aukera dute: bidaiak, lagunekin geldialdiak... Finean, aztertutako garaietan ez bezala, behingogatik haientzako denbora dute.

“Lan munduan edozein ardura hartu aurretik, haientzako ezinbestekoa zen etxeko zereginekin eta umeen zein senarraren zaintzarekin kontziliatu ahal izatea”

KIROLA

Igoera, inoiz baino hurbilago tomateroentzako

SD Deustok bete-betean lortu ditu aurtengo denboraldiko helburuak. Hala ere, aukera ezin hobea du hurrengo asteetan bere ibilbide luzeko lorpenik handiena gauzatzeko: 2. REEF mailarako igoera. Apirilaren 16an, deustuarrek Ondarruko Aurrera Kirol Elkartean aurka jokatu zuten. 90 minuturen ostean eta 0-Oeko emaitzarekin, SD Deustu hurrengo mailara igotzeko playoffa jokatzeko txartela lortu zuen. Hala, tomateroekin batera, CD Vitoriak, SD Leioak eta Basconiak jokatu dute igoera fasea. Era horretan, joan den apirilaren 22an Barakaldoren aurkako partidarekin bukatu zuten liga. Igoeraren saria lortzeko lehen partidua apirilaren 30ean jokatu da SD Deustoren eta CD Vitoriaren artean.

KIROLA


Lau urtez jarraian, Deustu Bizkaiko txapeladun

Deustu Arraun Taldeak apirilaren 16an jokaturako Bizkaiko Batel txapelketa irabazi du laugarren urtez jarraian. Emakumezko taldeak 10:00-ko denborarekin lortu du garaipena Kaiku eta Isuntzaren aurretik, bigarren (+ 00:03) eta hirugarren (+00:16) hurrenez hurren. Horrenbestez, taldeak Bizkaiko talderik sarituena izaten jarraitzen du bost garaipenekin, 2017an lortutakoa kontuan hartuz. Atzetik, Getxo eta Kaiku ageri dira sarituenen sailkapenean, bakoitzak hiru garaipenekin. Euskadiko txapelketa-ri dagokionez, aldiz, bigarren sailkatu da Deustu. Horrela, Donostiarrak lortutako garaikurrarekin, taldeak ez du lortu bere hirugarren garaipen jarraitua.

OMENALDIAK

Sabin Lopez de Gereñori omenaldia

Athleticek Realaren aurkako euskal derbian Sabin Lopez de Gereño omendu du, 'Ikusi Mendizaleak' abestiaren sortzailea. Omenaldia partida baino minutu batzuk lehenago egin da, San Mamesen. Prest! aldizkariko 2020ko iraileko alean protagonistarekin izan genuen solasaldian, abestiak bere eskuetatik alde egin duela adierazi zuen autoreak, euskaldun guztion abestia dela azpimarratuz: "Hori da gehien maite dudana, ez dela nirea. Herriarena bihurtu da, nik herriari eman diot. Opari hoberik ezin nion egin". Haren atxikimendua eta ezagutza soziala oso nabarmena da. Azken batean, euskal kulturaren ikono herriko bihurtutako abestia da, Euskal Herriko maitatuenetako bat.


INGURUMENA

Ekologistak Martxan-ek salatu du Artxandako pasabidearen proiektuak ez duela ingurumen-inpaktuaren azterketarik

Elkartek Artxandako pasabidearen proiektuak ez duela ingurumen-inpaktuaren azterketarik salatu du. Horregatik, Bilboko Udalarik pasabidea bide batez ordezkatzea eskatu du. Azaroaren 2an, 1,5 km-ko pasabide bat eraikitzeko lanak hasi zituen Bilboko Udalak; hain zuzen ere, begiratokiaren pasealekua eta Enekuri lotzeko lanak. Pasabide hori sigi-saga igarotzen da Banderas mendiko hegalean zehar. Proiektua oinarri hartuta, ekologistek uste dute funtsezkoa dela tokiko administrazioak "paisaiarentzat eta ingurumenarentzat hain kaltegarriak ez diren azpiegiturak eraikitzea". Horrenbestez, pasabidea kentzeko eskatu dute "inpaktu bisual handia" duelako.





Urtea: 2005

Txema Luzuriaga

Cromoduro

Bizitza osoko industriarekin batera, puntako teknologiko industria ere izan zen Erriberan, “Cromoduro” bezalako teknologiarekin. ‘Aplicaciones Industriales del Cromoduro’ enpresak 1953an ekin zion lanean, produktu deribatuen edo aleazio berezien bidezko fabrikazioa eta eraldaketa, kromatu gogorren erabilera eta antzeko prozesuak ustiatzeko. Horrekin batera, makineria osagarriaren eta deribatuen fabrikazioan ere jardun izan dira. 1955ean, Zorrotzaurren finkatu zuten enpresa. Bertan, automobilera elementu plastikoak, motorretarako alkandorak eta erreminta-kaxak fabrikatzen jarraitu zuten.


Hala ere, eraikina 2019an eraitsi zuten.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
billbokoaldizkariak@gmail.com

△ ∇ △ ∇ △
TATTOO STUDIO


Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagrama: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303 

Optica
Avenda
Agirre Lehendakaria, 147 Tfonoa:
SAN INAZIO 94 475 11 24

ATXURI
TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
Plaza Celestino M^a del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com 


Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4


Yoki Berrri
Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintoreria
La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu 

artez
euskara zerbitzua   
Probatu herrizki.eus
ANDROID APP Google play  App Store
ERRO ZERBITZUA GOBIERNO VASCO BFA BFE  

 Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltea
Matrikula zaitez! 

Nailan
Parquetak - Bamizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

 **RONDOKO**
HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

PERSIANAS
KM
CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL: persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23


Nola ospatu dituzue Aste Santuko oporrak?



**Bosco
Bilbo**

Ez naiz Bilbotik atera, jan eta edan besterik ez dut egin.



**Ginna
Italia**

Ostegun eguzkitsua lagun batzuen belaontzian igarotzen, aukera hauek aprobetxatu behar dira. Eta, asteburuan, Leonera ihes egin dut.



**Itxaso
San Inazio**

Jaiegun hauek Kantabria aldean eman ditut eguzkiaren berotan, familia zein lagunekin disfrutatzen.



**Jon
Miribilla**

Aste santua nire neskalagunaren herrian igaro dut, bere familiarekin.



**Miren
Natxitua**

Nire bi herrietan egon naiz familia eta lagunekin, eguraldi honek utzi dizkigun planez gozatzeko.



**Eneko
Deustu**

Ibilian-ibilian. Aurten Done Jakue bidearen epilogoa egiten egon gara. Helmuga: Finisterre.



harkua bete herria

DEUSTUKO HERRIKO TABERNA, 35 URTE GURE ARTEAN

Pasa den apirilaren 18tik 22ra Deustuko Herriko Tabernaren urteurrena ospatu dugu. 35 urte dira aurten eta azkenengo bi urteurrenak ezin izan genituen ganoraz ospatu, 2020an pandemian dekretatutako itxialdiaren ondorioz. Garai arraroak izan dira eta gurean ere gogor eragin dute, baina 2023. urtean jada berriro ere normaltasunean martxa hartu dugu, eta nola gainera! Beste behin ere argi eta garbi esan dezakegu komunitate indartsu bat osatzen dugula, datorrena datorrela herri honen askapenean eta gizarte hau eraldatzeko prest dagoena.

Testua eta argazkiak: Deustuko Herriko Taberna

Urteurrena ospatzeko egitarau oparoa prestatu dugu aurtengoan ere. Nora filmaren proiektioari ekin genion asteartean urteurrenaren egitarauari. Ondoren, Andoni Olariagarekin antolatutako solasaldiarekin eman genion jarraipena hurrengo egunean, XXI. mendearen askapen prozesuaren dialektikaren nondik norakoan inguruan eztabaidatzeko.

Ostegunean, Xake Txapelketaren final handia ospatu genuen, otsailean hasi eta astez aste Herriko Tabernan kanporaketak gaintuzten joan diren Urko eta Endiak jokatu zutena. Txapelketa honek jarraipen handia izan du hasiera-hasieratik; izan ere, hogeita zazpi jokalarik bildu ditu lehiak. Eta, noski, finalak ere parte-hartzaile eta inguruko jendearen artean jakinmin handia sortu zituen, horren erakusle dira finalean egondako jendetza eta giro aparta. Hala, Deustuko Herriko Tabernaren jantokian pantaila erraldoian proiektatu genuen partida. Lehia oso estuaren ostean, Urko Azanza izan zen azkenean garaile, txapela eta guzti lehen aldiz. Azanzak bi urtez jarraian irabazi du Herriko antolatutako Xake Txapelketa. Zorionak txapeldu! Asteburuko ikuskizun handiaren ostean bertso saioaz gozatu genuen, Iزارo Bilbao, Janire Arrizabalaga, Araitz Katarain eta Maite Sarasola bertsolarien eskutik.

Hala ere, ospakizun handiaren eguna larunbata izan zen. Bakoitza bere arroparik eleganteenekin bertaratu zen, behar bezala gala festaz gozatzera. Herriko Tabernara ongietorria *photocall* batekin egin genion jendeari, eta ostean Deustun zehar trikipoteo

batekin girotu genuen eguerdia. Bazkaltzeko herrikora bueltatu eta ibilbide luze honetan egindako lanaz gogoratu, bidean eroritakoak eta preso daudenak oroituz eta etorkizunean oraindik egiteko dugun guztiaren omenez topa egin genuen. Ospakizunari amaiera ezin hobea eman genion egunak merezi zuen juergarekin. Herriko Taberna goizeko ordu bietan itxi eta jai luza egin genuen deustuarrok herriko kaleetatik gora eta behera.

Bihar, gaur eta etorkizunean ere Deustuko Herriko Taberna zabalik egongo da, 1987tik bezala, herri honen askatasunerako bidean eta gizarte justuago baten eraikuntzan beharrezkoak izango diren pertsona eta kide guztien etxe eta topaleku izaten jarraitzeko, nondik gatozen ahaztu gabe eta nora goazen argi daukagula. 35 urte bete ditugu, baina oso gazte sentitzen gara oraindik!





Adimen artifiziala diseinugintzan

Niko Vazquezek, MCD taldearen sortzaileak, azken aldiaren adimen artifizialak erabili izan ditu bere diseinatzaile lanetan. Adibide garbia 'Make Bilbao Grey Again' obra da. Bertan, A.I. hauek erabiltzen ditu 70-80 hamarkadako ingurunea berreraikitzeko. Irudi guztien artean, gure Deustu ere presente ageri da.



1984an Euskalduna ontziolako langileek egindako erresistentzia-borroka.



Arangoiti.



Deustuko Erribera.



Industrialdea.

DENA PREST 2023KO BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA HASTEKO



Testua eta argazkiak: Ander Anakabe, Elorri Bertso Eskola

Badator Udabarria Bertsotan, 2023ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketako sailkapen fasea. Maiatzaren 4tik 25era zortzi saio izango ditu fase horrek, ostegunetan guztiak. Bertan, bi multzo egongo dira, A eta B multzoa, eta bertsolariek saio bakarrean lortutako puntuazioarekin lortuko dute udazkenerako sailkapena. A multzoko saioak Urduliz, Dima, Aulesti eta Busturian izango dira hurrenez hurren. B multzoari dagokionez, Durango, Muxika, Sopela eta Zallan abestuko dute bertsolariek. Saio guztiak 18:30ean izango dira,

A eta B multzoetako saioak aldi berean. Udabarria Bertsotan fasean 48 bertsolarik hartuko dute parte, eta horietatik 26 bertsolarik egingo dute aurrera, hau da, ia erdia sailkatuko da. 26 horiei pasa den edizioko finalaurrekoetan aritu ziren bertsolariak batuko zaizkie. Kanporaketa hauetan ez dira egongo 2021ean Miribillan abestu zuten 8 bertsolariak. Nerea Ibarzabalek badu leku bat finalean duela bi urte txapela irabazteagatik. Gai-nontzekoak finalaurrekoetan hasiko dira, baldin eta txapelketa uztea ez badute erabaki.

P6
MATE KUMATZAN
KONPAGIA



REY DESNUDO, CHICO MUERTO

apirilaren 21etik maiatzaren 7ra

Dramaturgia
eta zuzendaritza
INIGO COBO

Antzezleak
**SARA BARROETA, JON CASAMAYOR,
ITXASO GIL, JOSH ORTIZ DE ZÁRATE,
ARNATZ PUERTAS**

www.pabellon6.org

Deustuarrak ere lehiarako prest

Deustualdeari dagokionez, bi ordezkari izango ditugu: Enare Muniategi Etxabe eta Maite Sarasola Isazelaia. Lehenari dagokionez, bere hirugarren txapelketa izango da. 2018an aurkeztu zen lehen aldiz txapelketara, baina ez zuen udazkeneko fasera sailkatzerik lortu. Hala ere, azken txapelketan udazkeneko fasera iritsi zen. Aurtengoari dagokionez, bere helburua bere buruarekin gustora gertzea izango da, sailkapena alde batera utzita. Sailkatzea lortu ala ez, bera gustora geratzeko ari da entrenatzen eta Zallan hori erakutsi nahi izango du.

Maitek maiatzaren 11n abestuko du Muxikan eta bigarren aldiz abestuko du Bizkaiko Txapelketan. Aurrekoa izan zen bere lehen txapelketa eta ez zuen bigarren fasera sailkatzerik lortu. Txapelketa hartan ez zuen gozatu, ez zen gustora geratu, beraz aurtengo asmo nagusia lehian tartean dela gozaten ikastea izango du. Ahalik eta ondoen nahi du kantatu, bere kantakerarekin, eta horrela zerbait ateraz gero pozarren joango litzateke etxera. Sentsazioei dagokienez, urduritasuna nabaria da, izena eman zuenean data urrun ikusten zuen eta apurka-apurka hurbiltzen doan heinean, nerbioak hazten doaz. Maitek badaki urduritasun hori areagotu egingo dela eta saioan edozer gerta daitekeen arren, ahalik eta gehien gozaten ahaleginduko da.

Elorri Bertso Eskola, Deustualdeko Bertsoaren aterpe

Txapelketa prestatzeko ez ezik, aipatutako bi bertsolariak bertso eskola berdinean elkartzen dira euren bertsokera fintzeko: Elorri Bertso Eskola. Bertan, denbora luze daramate Deustualdean bertsoari tar-te bat bermatzeko xedez.

Momentu honetan, bat-bateko bi talde biltzen dira Müller Kulturgunean; horietako bakoitza 3-4 kidek osatzen dutena, alegia. Hala, txapelketa garaia izaki, astean bi aldiz elkartzen dira. Halaber, idatzizko bertsolaritza lantzen duen beste talde bat ere bada-gu Elorri, Sarasola irakasle bezala hartzen duten 10 ikasle osaturik.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketarako sailkapen fasea

Udabarría bertsoan 2023

Maiatzaren 4tik 25era

MAIATZAK 4
Urduliz. 18:30ean, Kultur Etxean.
Aita Inoharri Abarca, Belak Bilbao Larra, Igar Gárate Inoharri.
Bert Garmio Larrañabak, Jose Larrañaga Durabito eta Mikel Alkorta Urtubi.
Gai erakutsi: Bertsoak Garmio.

MAIATZAK 11
Dima. 18:30ean, Dimako Eskolan.
Aitor Andueña Andueña, Ander Serrano Garcia, Iker Garagoitia Aduarte.
Maki Izantzi Zuloaga, Koldo Goenaigoa Solaja eta Peio Laga Irujo.
Gai erakutsi: Iger Muxika Bergeles.

MAIATZAK 18
Aulesti. 18:30ean, herriko aretoan.
Aitor Salazar Garcia, Eider Sotillo Etxebarria, Eneko Naveira Ugarteburu.
Iker Bernaldi Bengo, Julen Bergaregona Odozoki eta Luden Odozoki Milla.
Gai erakutsi: Aritz Ugaitze Beguirio.

MAIATZAK 25
Busturia. 18:30ean, Ahamiako Kultur Etxean.
Aitor Alkorta Garcia, Eneko Alkorta Garcia, Iker Bergaregona Ugarteburu, Iker Bernaldi Bengo, Julen Bergaregona Odozoki eta Luden Odozoki Milla.
Gai erakutsi: Aritz Ugaitze Beguirio.

Durango. 18:30ean, Platerena Kultur Aterpea.
Aritz Kizartza Mugaña, Aritz Zepiku Mendialak, Eneko Urtubi Etxebarria, Inoharri Abarca, Jose Larrañaga Durabito eta Mikel Alkorta Urtubi.
Gai erakutsi: Iker Muxika Bergeles.

Muxika. 18:30ean, Aduarkako Etxebaita.
Aitor Salazar Garcia, Eider Sotillo Etxebarria, Eneko Naveira Ugarteburu, Iker Bernaldi Bengo, Julen Bergaregona Odozoki eta Luden Odozoki Milla.
Gai erakutsi: Aritz Ugaitze Beguirio.

Sopela. 18:30ean, Kuntzian.
Aitor Alkorta Garcia, Eneko Alkorta Garcia, Iker Bergaregona Ugarteburu, Iker Bernaldi Bengo, Julen Bergaregona Odozoki eta Luden Odozoki Milla.
Gai erakutsi: Aritz Ugaitze Beguirio.

Zalla. 18:30ean, Ibarra El Longor Jaungoiko Kapera.
Aitor Alkorta Garcia, Eneko Alkorta Garcia, Iker Bergaregona Ugarteburu, Iker Bernaldi Bengo, Julen Bergaregona Odozoki eta Luden Odozoki Milla.
Gai erakutsi: Aritz Ugaitze Beguirio.

A multzoa B multzoa

Sarrerak: www.bertsosarrerak.eus

Antolatzailea: Subirioak:

Aukera anitzeko ikasurtea

Udara geroz eta hurbilago dugun honetan, Elorri Bertso Eskolako kideek 2022-2023 ikasurtearen balorazio positiboa egiten dute. Izan ere, astero egiten duten lanaz aparte, Bertsoarekin zerikusia duten egitasmo ugari antolatuta dituzte.

Urtero bezala, Deustuko Jaietako bertso saioa beraien antolatuta dute. Era horretan, aurtengoan Alaia Martin, Andoni Egaña, Saioa Alkaiza eta Mikel Aiartza aritu ziren kantuan. Azken honen kasuan, Elorriko bertsokidea izanik.

Horretaz gain, beste urte batez, Aferak bertso-ekimenari ekin diote Bertso Eskolako kideek. Egitasmo honi esker, bertsoa ostegunetako ikasle giroarekin uztartzen saiatu dira; bertso kantuan hasi diren bertsolari gazteentzako aukera ezinhobea, alegia.

barkua bete herba

>>NUTRIZIOA



EBA MIRENTXU JOAN ZEN EGUZKI BILA HONDARTZARA...

Testua: Ainhoa Maiztegi

... baina bi hilabete arinago, aste santuko oporretatik bueltan, nutrizionista baten kontsultara jo zuen “bikini operazioarekin” hasteko.

Nutrizio kontsultek sasoikotasuna dauka-telako ez da gauza berria. Gainera, oso nabaria da urteko zenbait sasoiaren kontsultara datozten pertsonen kopurua handitzen dela. Izan ere, gardentasun osoz aipa ditzaket saio hauek zeintzuk diren: urte berriaren hasieran (urte berrian, helburu berriak), aste santutik bueltan (bikini operazioaren etorrerarekin bat) eta eskola-kurtsoaren hasieran, iraila eta urria tartean (errutinaren finkatzean).

Data hauetan, gehienbat, norbanakoen balore propioa euren fisikoan dagoela dioten mezu ugarien aurrean ikusten dugu geure burua. Eta, itxura fisiko hori gizartearen kانونekin bat egiten ez badu, jai daukagu. Edo, hau da transmititu nahi duguten mezua.

Nahiz eta denborak aurrera egin ahala urterokotasun horren hausturatik gertuago egon, hilabete horietan zehar nutrizionisten lan kopurua handitu egiten dela ebidentea da. Baina kontuz! Gure lana, edo hobeto esanda, nire kasu propioan, nire lan kopuruak gora egiten duela aitortzen dudanean, ez diot pertsonen pisu galera edo gerri perimetroaren murrizteari erreferentzia egiten. Nire lanaren eta energiaren % 90a beste toki batera bideratzen baitut: norbanako horiei, dieta egitea eta gose izatea ez dela osasuntsua ikustaraztea, alegia. Bai, dieta

egiteak ez doa osasun integralarekin bat. Behintzat, dieta kontzeptuan aldaxka peso-zentristak eta elikadura murrizketak baldin badaude.

Eba Mirentxuk hondartzara joan nahi baldin balu, pare bat gauza beharko lituzke soilik: hondartza gertu izatea, edo horra gerturatzekeo baliabideak edukitzea, eta bestetik bainujantzi, bikini edota nudismoa praktikatzeko gero, gorputz bat edukitzea. Eta kitto! Baina, nahiz eta hausnarketa hau logikoegi iruditu... Tamalez, egunero errepikatu eta hitzez adierazi behar dut kontsultan. Eta, zeozer hainbestetan errepikatu behar izanak, mezu hau ez dela sakonki heldu esan nahi dit, nahiz eta sozialki apurnaka iristen ari den.

Beste behin ere, ez dut fokoaren erdipuntuan kontsultara datozten pertsonak ipiniko. Baizik eta pentsamendu kritiko eta intrusibo hauek sortzeko eta urtero moduan hondartzaz eta euren gorputzez disfrutatu nahi duten pertsonen gain eragin ez-osasuntsua daukatenengain.

Sasoi honetan, gizarte gordofoboaren irudimena katapultatu egiten da eta hamaika dieta mota agertu egiten dira. Oso ohikoa da ere bai, “bikini operazioa” dakarten zerbitzuen promozioarekin topo egitea, baita detox irabiakietan eskaintza bereziak ikustea edota “21 eguneko desafioa: lortu sabel laua” bezalako esloganak edonon irakurtzea.



harkua bete herba


ZAINDU BARRUA.

Aurrekoren bat jarraitzeko zalantzak eduki baldin badituzu, jarraian, dietak egitearen hainbat arrisku jasoko ditut: elikadura-nahasmenduren bat edota gorputz-dismorfia garatzea, nutriente galerak izatea, neke kronikoa pairatzea, libido murrizketa izatea, deskantsu higiene eskasa azaltzea, alterazio metabolikoak piztea, nahasmendu emozionala bizitzea... Beraz, ez gaude lelokeria baten aurrean.

Bukatzeko, helburu bezala, autozaintza aukeratu duen paziente batek sortutako lema pertsonalizatuarekin bukatu nahi dut. Baina aurretik; Eba Mirentxu, zugana jotzen dut: besarkada handia bidaltzen dizut eta hondartzan, errekan, zure etxean edo basoan zure gorputzaz eta zuzat integralki gozatu dezazun opa dizut.



Ainhoa Maiztegi

 @ainhoamaiztegi.nutricion

ZAINDU MUNDUA.

ZAINDU BURUA.

ZAINDU KANPOA.



Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!

Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...



Ramon y Cajal, 24
DEUSTUA

Tfnoa: 94 447 45 00



San Pedro plazako
frontoiaren atzean



ZURE PINTXO
ONENAK GUREKIN
KONPARTITZEKO

prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN



kultur txontx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



PATRI MUÑOZ

Script eta kulturzalea

TRANS IKUSGARRITASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Martxoaren 31n Trans Ikusgarritasunaren Nazioarteko Eguna izan zen eta nire harea-aletxo berantiarra jartzera nator. Arte disziplina ezberdinetan gai hau lantzeko erabili diren moduak eta tresnak anitzak dira .

Nik besapean hiru komiki ditudala norkizue. Hirurak oso ezberdinak kontakizunean, narratiban eta marrazteko moduan. Argitalpenaren dataren arabera Maia Kobabe-ren "Gender Queer: A Memoir", Fumetti Brutti-ren "P. La mia adolescenza trans" eta Sara Soler-ren "Us" izango lirateke. Hirurak lehen pertsonan idatzita. Hirurak zintzotasun handiarekin sortuak.

Maia Kobabe ez bitarra eta asexuala da eta bere komikian bere nerabezeroari buruz hitz egiten digu, identitate asko gorpuzten diren bizitzaren une horretaz. Bizitako esperientziak, ezagututako lagunak eta maitasunak, minak eta pozak.

Fumetti Bruttiren lanak ere nerabezeroari buruz hitz egiten digu baina oso modu ezberdinean. Bere marrazkiak kontatzen ari den unearen errepresentazioa bera dira, narrazioa kontatzeko tresna eta kontatzen ari denaren irudikapena aldi berean. Marra gutxirekin marraztutako pertsonaiak P bizitzen ari den dekonstrukzioaren metafora dira.

Sara Soler komikilari zis bat da eta bere bikotearen trantsizioa eta honek bikotea, bera eta beraien arteko harremana nola eragin zituen kontatzen digu, baita gainontzekoen begirada nola aldatu zen ere. Komikia umorez idatzita dago eta gure buruak ikusiko ditugu identifikaturik pasarte askotan.

Doinua: Badira hiru aste



GALDER SEGUROLA FERNANDEZ

Elorri bertso-eskolako kidea

Deustuko jaiak ahaztuta
udaberri amaiera
Eguraldian da nabaria
udaren marmara
Azken txanpa sentitzen gabela
konpromisoen ikara
Hartu behar arnasa sakona
akaso behar bultzada

Azterketak, entregak, epeak
izan zaitez hoiien zaldun
Egun-oskarbia da arerio
ordea liteke lagun
Azken momentu hauetarako
bilakatuta fededun
Zuen lekuetara, prest, ta ja
ez da asko falta



EGIN ZAITEZ BABESLE!

Egin zaitez PREST! aldizkariaren babesle
eta jaso opari 20. urteurrenaren lamina.

Urtean 25 euroren truke beste
20 urte irauten lagunduko diguzu!

Informazio gehiago: prestsharpide@gmail.com

DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

Prest!

ehbildu



Maite duzun Deustualdea

EGINGO DUGU.

ehbildu

 @ehbildubilbo

 EHBildubilbo

 bilbo@ehbildu.eus